IRAKURMENA: A1

Etxebizitzak alokairuan

Egoera: alokairuan bizitzeko etxebizitza baten bila ari zara Gasteizen.

ARANTZABELA

Etxe berria. Bi logela, komun bat, egongela eta sukaldea ditu. Bigarren pisua. Ez du igogailurik. 600€ hilean.

LAKUA

Gela bakarreko apartamentua, altzariz hornitua. 4. solairuan. Igogailua du. Autobus-geltokitik gertu. 980€ hilean.

ALDE ZAHARRA

Bi logela ditu, amerikar sukaldea eta komun bakarra. 750€ hilean.

ABETXUKO

Gela bat alokatzen dut 4 logelako pisu batean. Altzariz hornitua dago. Pisuak 80 m2 ditu. Oso argitsua da. Sukaldea eta komuna erabiltzeko eskubidea. Ez erretzaileentzat. 300€ hilean.

FORU PLAZA

3 logela, komun bat, egongela eta sukaldea. Terraza du. Ondo komunikatua. 950€ hilean.

ARMENTIA

800€ HILEAN. 90m2-ko etxebizitza. Oso argitsua. Bi logela, egongela, 2 komun eta garajea ditu. Ikastolaren eta kiroldegiaren ondoan dago.

1. Non dago hiru logela dituen etxebizitza?

A) Abetxuko auzoan.

B) Lakua auzoan.

C) Foru plazan.

2. Non ezin daiteke erre?

A) Gela bakarreko apartamentuan.

B) Lau logela dituen etxebizitzan.

C) Foru Plazan dagoen etxebizitzan.

LIVEWORKSHEETS

3. **80m2-ko etxebizitza zein solairutan dago?**

A) 1. solairuan.

B) 4. solairuan.

C) Ez du jartzen iragarkian.

4. **Zein etxebizitzak ditu bi komun?**

A) Kiroldegiaren ondoan dagoenak.

B) Arantzabela auzoan dagoenak.

C) Amerikar sukaldea duenak.

5. **Zein da oso argitsua?**

A) Terraza duen etxebizitza.

B) Abetxukokoa.

C) Abetxukokoa eta Armentiakoa.

LIVEWORKSHEETS